



Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailaren 16koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradokitzen zaio ikasleak onartzeko prozesu baten eraginetarako familia batek aitortu duen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin dezala.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan kexa-idazkia jaso zen familia baten eskutik. Haien semea Bilboko Begoñako Andra Mari ikastetxean onartzea nahi dute. Kexan, familiak dio ekimen egokiak bideratu dituela Hezkuntza Administrazioaren nahiz Bilboko Udalaren aurrean beste familia batek eroldako datuen gainean egindako gehiegikeriazko erabilera salatzeke. Antza, beste familiak, honek ez bezala, onarpen eskaera gauzatzea eta semea adierazitako ikastetxean sartzea lortu du.

Behin izapidetzea onartuta, erakunde honek jarduera ezberdinak bideratu zituen kexak eragindako administrazio ezberdinekin.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean bideratutako jardueran, erakunde honek jarraian adieraziko diren aurrekariei helduz oinarritu zuen laguntza-eskaera:

“Dakizunez, erakunde hau etengabe gomendatzen aritu da zenbait neurri sustatu behar direla familiek adierazitako bizilekuak errealitatearekin bat datozela indartzeko, diru-laguntza publikoez mantentzen diren ikastetxeetako ikasleak onartzeko prozesuetan.

Are gehiago, oraintsu ofiziozko jarduera bat hasi dugu (3/2007/200 zenbakikoa), kontrastatu nahi baitugu ea errealitatean betetzen den Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2007ko otsailaren 12ko Aginduan ezarrita dagoen familiaren bizilekuari buruzko datuak egiaztatzeke izapidea. Agindu horren bidez, eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epeak ezartzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako herri ikastetxe eta itunpekoetan 2007-2008 ikasturterako ikasleen onarpenerako Jarraibideak onartzen dira.



Gure ustez, egiaztatzeko izapide horren eta hezkuntza-administrazio horrek salaturikoak bezalako gehiegizko jokaerak geldiarazteko duen borondatearen erakusgarri izan daiteke kexa hau.”

Bestalde, Bilboko Udalarekin hasitako jardueran aurrekari horiek azpimarratu genituen ere, baina aipamen berezia eginez EUDELen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean lortutako lankidetzaren proposamenari. Horren bidez, ikasleen bizitokia ikastetxetik gertu kokatzearen irizpidea behar bezala aplikatzen dela bermatu nahi da.

2. Gure laguntza-eskaerari erantzunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak txostena helarazi digu. Bertan, orain dela gutxi garatutako onarpen prozesurako onartutako jarraibideen berri eman ondoren, honakoa jakinarazi zaigu:

“- CPEPS Ntra Sra de Begoña LBHIPko helbidea kontsultaturik eta emandako informazioaren arabera, zera jakinarazten dizut:

Denbora arautuan Eskola Kontseiluak aurkeztutako eskabideak barematzeari ekin zion, 2007ko otsailaren 12ko aginduari jarraiki.

Lehenago Bilboko Udalari bidali zizkioten NAKo helbidea erroldatzekoarekin bat etorri gabe zuten pertsonen izenak. Udalaren idazkia kontuan edukita jokatu zuten.

Onartuen behin-behineko zerrendak argitaratu ziren martxoaren 28an. Lau helegite egin ziren behin-behineko zerrenda horien aurrean. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak ukatu egin zituen. Ziurtasun handiagorako bigarren txostena eskatu zioten Udalari, erreklamaziorako ikasle bati dagokionez erraldotzeagatik. Udalak ez zuen erantzunik bidali idatziz. Hori dela eta, ikastetxea Udalaren lehen txostenari atxiki zitzaion.

- *CPEPS Ntra Sra de Begoña LBHIPk baliotasuna eman dio Udalaren ziurtagiriari, arautegian xedatzen denez.*
- *Familiari dagokionez, jakinarazten dizut maiatzaren 7an (... ..)ren matrikula gauzatu zuten, 2007/08 ikasturterako, Lehen Hezkuntzako 1.*



mailan, Bilboko CPEIPS Ikasbide HLBHIPn; 2. aukeran eskatu zen zentro hori.”

Ikus daitekeen moduan, hezkuntza-arduradunek lehen aukera moduan eskatutako ikastetxeak garatutako jardueran oinarritu dute erantzuna, behin betiko zerrendak jada argitaratzean dagoen ondorengo erreklamazio fasearen gaineko inolako aipamenik egitea saihestuz. Fase hartan, gainera, Hezkuntza Administrazioak esku-hartze zuzena du Hezkuntzako lurralde ordezkariaren bitartez.

Bestalde, Bilboko Udalak txosten xehatua helarazi dio erakunde honi. Bertan, haren ustez Hezkuntza Administrazioak aitortutako helbideen errealitatea egiaztatzekeo jarritako egiaztatze izapideak agertzen dituen zailtasun eta mugak azpimarratu ondoren, bere jarduna argitzen zaigu honakoa nabarmenduz:

“El 17 de abril el Director del Colegio Nuestra señora de Begoña –PP Jesuitas- remitió un escrito comunicando que, una vez realizado el proceso de admisión, habían recibido recursos afirmando que algún adjudicatario de plaza escolar había falseado los datos, y en concreto citaban a (...), por si este Ayuntamiento deseara efectuar alguna observación.

Teniendo en cuenta que:

- *Hay quien reside y figura empadronado desde hace tiempo, incluso años, en el mismo domicilio y no ha cambiado el DNI/NIE/Pasaporte: se supone que es por desidia, ahorro (de energías o monetario) o comodidad (hasta que le caduque el documento actual).*
- *Lo lógico es que los padres demuestren que residen también por otros medios de prueba que no sea el Padrón: el primero de ellos sería que justifiquen haber solicitado nueva documentación (DNI e NIE) con el domicilio actual de empadronamiento, tal y como es su obligación legal (art. 7.2 del Real Decreto 1553/2005, de 23 de diciembre: ‘Independientemente de los supuestos del apartado anterior **se deberá proceder a la renovación** del Documento Nacional de Identidad en los supuestos de variación de los datos que se recogen en el mismo, en cuyo caso será preciso aportar, además de lo establecido en el apartado anterior, los documentos justificativos que acrediten dicha variación”.*



- *Si hay alguien que figura empadronado desde hace poco (incluso desde el período de preinscripción), puede ser que se acabe de cambiar de domicilio, y, para poder cerciorarse realmente de que ése va a ser su domicilio habitual a partir de este momento habría que dejar pasar la mitad del año más un día. El Ayuntamiento de Bilbao (ni ningún otro, que sepamos) no hace un seguimiento diario del domicilio de todos y cada uno de sus miles de vecinos: simplemente da credibilidad a la declaración de éstos de cuál es su domicilio habitual.*

No hubo, por tanto, observación alguna que hacer al Colegio Ntra. Sra. de Begoña, en relación con las reclamaciones sobre la baremación de admitidos al centro, pues incluso es posible que quien a principios de marzo está empadronado en un domicilio, mañana, el mes que viene, o en septiembre de 2007 cuando comience el curso, puede estar empadronado en otro domicilio e incluso en otro municipio.

Por lo que respecta al caso concreto de (...) y su madre, (...), en fecha 3 de mayo se inició un expediente de baja por inscripción indebida de (...) y sus dos hijos menores, (...) y (...), en el domicilio de la calle (...) (Exp. ...), a instancias de (...). La tramitación de este expediente está en curso junto con cientos de 'denuncias' más de empadronamiento indebido referido a miles de personas (2.527 en los meses de enero a mayo de 2007).

El hecho de que se inicie un expediente no quiere decir que, sin más, un Ayuntamiento pueda dar de baja del Padrón a vecino inscrito alguno, ni le pueda cambiar a otro domicilio sin más, sino que legalmente, en todo caso, y previas las comprobaciones que se estimen pertinentes, hay que dar audiencia al interesado para que declare o manifieste lo que estime oportuno en defensa de sus intereses."

Gogoetak

1. Joan den 2006-2007 ikasturtean, hainbat kexa jaso genituen Basauriko Ariz ikastolan ikasleak onartzeko bideratutako onarpen prozesuaren gainean. Ondorioz, erakunde honek urriaren 30eko 24/2006 gomendioa egiteko beharra baloratu behar izan zuen. Horren bidez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa



Sailari eskatu genion neurriak har zitzala familiek aitortutako bizilekuak eta errealitateak modu egokiagoan bat etor zitezten, ikasleak funts publikoko ikastetxeetan onartzeko prozesuetan bizileku horien gertutasuna aintzat hartu eta baloratzeari dagokionez.

Gomendio horren gogoetetan oinarritzko eta funtsezko hausnarketa bildu genuen, hain zuzen ere zentsu edo erroldako ziurtagirietan helbidetzat hartutako bizitokiaren gaineko ustea hutsaldu egin daitekeela datu horiek errealitatearekin bat ez direla etortzen frogatzen denean. Aipatutako ebazpen judizialek horixe berresten dute, hain zuzen.

Horregatik esaten genuen, gure ustez, familia batzuek, beren seme-alabek ikastetxe publiko eta itunpeko jakin batzuetan sartzeko dituzten aukerak sendotu nahian, zentsu eta erroldako datuak gehiegikeriaz erabili dituztela sumatzeko elementurik agertzen bada, beharrezkoa dela Hezkuntza Administrazioak zerbait egitea eta konpromiso berezi bat onartu eta bereganatzea diru-laguntza publikoek mantentzen diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuak modu egokian kudea daitezten zaintzeko, eta ez du utzi behar egindakoa bezalako gehiegikeriak ikasturtea hasi eta gero sendotu daitezten.

Xede horrekin eta alderatutako esperientzia moduan, Estatuko beste administrazio batzuk ikasleak hartzeko onartutako jarraibideei heldu genien. Horrela, administrazio gehienek, orduko EAeko Hezkuntza Administrazioak bezala, interesdunei errolda-ziurtagiriak aurkezteko eskatzea besterik egiten ez bazuten ere, beste batzuek ekimen berritzaileagoak sartu zituzten, adibidez betekizun osagarriak eskatzea egoitza-ziurtagiri sinplearen gaineratik edo zuzenean frogarako beste bide ezberdin batzuk ezartzea.

Egia da beste ekimen horien balizko birtualtasun praktikoa ezezaguna zitzaigula. Hori dela eta, orduan, zuzena iruditu zitzaigun dokumentu ezberdinetako informazioa gurutzatzearen alde egitea. Horrela, informazio horiek bat etorriko ez balira, frogarako ekintza gehiago eskatzea babesteko arrasto moduan erabiliko lirakeke, ikasleak onartzeko adierazitako helbidearen errealitatearekin bat datozela ziurtatze aldera.

Edonola ere, horrek guztiak ez lukeela inolako birtualtasunik izango adierazi genuen, Hezkuntza Administrazioak horrelako egoerak bide onean jartzeko jarrera irmorik agertzen ez bazuen.



2. Orduan, ez zen posible izan orain berriro proposatzen dugun lan hori. Espedientea izapidetzen aritu ginen bitartean, ez zen argitu familia interesdunen batek administrazio justiziaren bideak erabili zituen edo ez, horren bidez ikasleen onarpen prozesuarekin zerikusia zuten ebazpenek irmotasuna hartzea ekiditeko. Ofizios berrikusteko jardueraren baten bideragarritasunik ere ez zen planteatu.

Aldiz, orain badakigu kexa adierazi duen familiak erreklamazioen bidea erabili duela, eta oraindik ebazpena jaso zain dagoela. Halaber, kasuan kasuko administrazio errekurtsua erabiltzeko prest dago, administrazio justiziaren derrigorrezko bideak gorabehera. Horrek agertoki paregabea jartzen digu hezkuntza-administrazio hori adierazitako onarpen prozesua behar bezala kudeatuko dela bermatzen saia dadin.

3. Jada adierazi den moduan, erakunde honek joan den urtean egindako gomendioaren gaineko jarraipena egin nahi du. Ondorioz, ofiziosko espedientea irekitzea erabaki da (3/2007/200), hartutako neurrien balizko eraginkortasuna baloratzeko familiek seme-alabak funts publikoez mantentzen diren ikastetxeetan onartzeko prozesuetan aitortutako helbideen eta errealitatearen arteko bateratasuna sendotzerakoan.

Beste ekitaldi batzuetan ez bezala, aurtan 2007-2008 ikasturtean ikasleak onartzeko emandako jarraibideen ezaugarri nagusia da hurrengo ezarpenak jasotzen dituztela:

“Zazpigarrena.– Bizilekuaren hurbiltasuna.

Aitaren, amaren edo legezko tutorearen bizilekuaren hurbiltasunari dagokion baremoa aplikatzeko, honakoak jarraituko diren arauak:

a) Atal honi dagokion puntuazioa lortzeko, errolda agiria aurkeztu beharko da (aita, ama edo legezko tutorearen azken errolda aldaketaren antzinatea adieraziz) eta baita hauen NANen kopiak ere.

Hamargarrena.– Datuen egiaztapena.

Ikasleen baremazioa egin behar den ikastetxeetan aurkeztutako datuak egiaztatuko dira. Horretarako, honako hau izango da kontuan:

(...)

b) Bizilekua.– Udal-Errolda ziurtagirian agertzen den aita, ama edo legezko tutorearen bizilekua NANekoarekin bat ez datorrenean (NIE atzerritarren



kasuan), ikastetxeak dagokion udaletxeari jakinaraziko dio, eskabide epea bukatu ostean, dagokion egiaztapena egiteko.

Errenta eta bizilekuaren egiaztapenen emaitzak jaso arte, eskatzaileen datuak ontzat hartuko dira, nahiz eta emaitzak jaso ondoren dagozkien aldaketak burutuko diren onartutakoen zerrendak osatzeko.

Egiaztapenen emaitzak jaso ondoren, bizileku eta errentari dagozkien udal eta ogasuneko ziurtagiriak ontzat hatuko dira.

Egiaztapenen emaitzak, onartutakoen behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren jasoko balira, ikastetxeak kontuan izango lituzke haien aurkako helegiteen ebazpenerako. Egiaztapenen emaitzak, onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratu ondoren jasoko balira, ikastetxeak ordezkartzari jakinaraziko lioke.”

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza eskatuta egiaztapen izapide honen benetako eragina ezagutzeko hasi berri diren ikasle onarpeneko prozesuetan, hezkuntza-arduradunek honakoa jakinarazi digute:

“...EUDELekin batera adostutako prozeduraren arabera, ikastetxeak berekin diote igortzeari dagozkien Udaletxeetara erroldatzeko datuak egiaztatzeako eskariak, barematu beharrean egonez gero. Hori guztia dela kausa, ez daukagu geure esku datu orokorrik gauzatutako egiaztatzeen kopuruaren gainean. Bestalde, idazki bat igorri diogu EUDEL erakundeari, prozeduraren balioespina eman diezagun, eta baita ekar liezazkigukeen datuak ere egindako egiaztatzeen kopuruari, sortu diren arazoei eta abarri buruz.”

Ofiziozko jarduera hori izapide propioaren xede izango bada ere, uste dugu esku artean dugun kexaren izapidetzeak ondorio batzuk aurreratzea ahalbidetzen duela eta, nolabait, horiek Bilboko Udalak adierazitako zailtasunekin bat datozela.

Une honetara arte jardundakoaren arabera, egungo egoera honakoa da: salatutako familiak aurkeztutako helbideari buruzko datuen artean alde batzuk sumatu dira eta eragindako udalaren laguntza eskatu da. Hark, hasiera batean udaleko erroldan jasotako datuak egiaztatu baditu ere, baja-espeditatea ofizioz irekitzea erabaki du, eta horren izapidetzea ere denboran luza daiteke.

Ariz ikastolaren kasuan gertatu zen modu berean Hezkuntza Administrazioak ekimen oro saihesten badu eta aurkeztutako errolda-ziurtagiriari behin betiko



izaera ematen badio kontrakoa frogatzeko aukerarik gabe (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako erantzunean suma daitekeen moduan, kexa honen izapidetzean jarraian datorrena adierazi zuenean: “*CPEPS Ntra Sra de Begoña LBHIPk baliotasuna eman dio Udalaren ziurtagiriari, arautegian xedatzen denez*”), orduan jarraibide berrietan sartutako neurriek edo kautelek ez dute ezertarako balio izan.

Gure gomendioan adierazi genuen moduan, alde horiek arrasto bezala erabili behar dira, horietan oinarritzeko froga-ekintza gehiagoren beharra, ikasleak onartzeko adierazitako helbidearen eta errealitatearen artean alderik ez dagoela ziurtatze aldera. Horrela bakarrik ziurtatu ahal izango da aitortutako helbideak errealitatearekin bat datozela ikusteko egon daitezkeen alderaketa-aukera guztiak erabili direla.

Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, honako iradokizun hau egin dugu:

4/2007 IRADOKIZUNA, uztailaren 16koa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina

Kexaren adierazle interesdunek erabilitako administrazio justiziaren bideak aprobetxatuz, salatutako familiak Bilboko Begoñako Andra Mari LBHIPen ikasleak onartzeko prozesuan aitortutako helbidearen eta errealitatearen artean alderik ez dagoela ziurtatzen saia dadila.